# “La información no es una mercancía”

Somos seres sociales porque **nos comunicamos**; Intercambiar información es una actividad humana básica. La distancia es una barrera que dificulta la trasmisión de ideas, sensaciones, problemas, miedos o anhelos; Desde que bajamos de los árboles se ha tratado de ponerle remedio con el cuerpo, la voz, la escritura, la imprenta, el telégrafo, el teléfono, la radio, el cine, la televisión o el ordenador; Quien controla estos canales para trasmitir la información tiene poder; **Contra el poder del Capital, poder popular.**

**QUIÉN**

**1.** Eguzki Bideoak es un proyecto **popular, horizontal, independiente y autogestionado.** Se constituye como colectivo que aspira a una **transformación profunda y radical** de los sistemas de producción, la distribución de la riqueza y las relaciones entre seres humanos, pueblos y con la naturaleza.

**2.** Somos producto de una **reflexión** específica en torno a la producción y distribución de la información audiovisual y telemática. Pensamos que son necesarias **alternativas** a la propuesta ideológica del neoliberalismo, la propaganda de guerra y una cultura de masas alienante.

**3.** La nuestra es una propuesta **anticapitalista** porque no considera que la comunicación sea una mercancía. Busca formas de gestionar un medio de comunicación **al margen del mercado**. Se sitúa fuera de los criterios del beneficio económico y se opone a las lógicas de las empresas de comunicación.

**PARA QUÉ**

**4.** La prioridad de Eguzki Bideoak es **difundir** aquellas ideas, experiencias o conflictos olvidados, silenciados, deformados o criminalizados desde los medios de formación de opinión. Nuestro ámbito de actuación es **local** aunque **abierto** a la colaboración con otras realidades para dar voz a las sin voz.

**5.** Eguzki Bideoak produce vídeos con el objeto de hacerlos **llegar** al mayor número de personas posible y así **cuestionar la homogenización** cultural y el Pensamiento Único, combatir la persecución de **lenguas minorizadas,** generar **conciencia social**, activar **compromisos** y fomentar el **videoactivismo**.

**6.** El Capital necesita una lógica compartida entre oprimidos y opresores. Las tecnologías de la Información se están conformando como mecanismos de transmisión ideológica de primera magnitud. Apostamos por potenciar el **software libre, los medios antagonistas en la red y la guerrilla telemática.**

**7.** Tratamos de construir **cauces para la difusión de la información**. Interactuando con otros grupos de personas es posible que Eguzki Telebista sea realidad algún día. Las condiciones para afrontar este reto son, por orden de importancia: masa crítica de individualidades, recursos técnicos y capacidad financiera.

**8.** Consideramos indispensable construir un **archivo y distribuidora** de fondos audiovisuales. Los **testimonios** de luchas pasadas forman parte del patrimonio popular. El mantenimiento y uso de esos recursos es, además de un acto de justicia histórica con tantas gentes, la condición inicial para afrontar con garantías nuevas peleas o profundizar en nuestro propio aprendizaje y pedagogía política.

**CÓMO**

**9.** Eguzki Bideoak es una **red de personas** (nodos) que cooperan buscando el encuentro a partir del desacuerdo. Nuestras propuestas tienen sentido y cobran vida cuando además de asumirse políticamente las hacen propias un número suficiente de nodos. Rechazamos la tecnología como vehículo de información unidireccional. Concebimos las herramientas técnicas como instrumentos para poner en contacto personas, colectivos e ideas.

**10.** La **asamblea** es el **espacio de decisión , soberano y vinculante**. Nuestro funcionamiento es asambleario a todos los niveles y apela al consenso como eje de nuestra práctica política. Es el lugar en el que se reparten tareas, se organiza el trabajo, se realizan debates, se toman decisiones y donde se deben exigir las responsabilidades.

**11.** Llamamos a la **participación popular prolongada, igualitaria y antiautoritaria**. En Eguzki Bideoak no hay portavoces, representantes ni ideólogos. Conformamos una realidad descentralizada y cooperativa en construcción en la que no se acepta la protesta pero se incentiva la propuesta.

**12.** Nos proponemos activar todos los mecanismos a nuestro alcance para superar dinámicas que estratifican, jerarquizan y/o consolidan niveles de conocimiento diferenciados. Apostamos por una **distribución horizontal** del saber y por la formación continua de sus integrantes.

**CON QUIÉN**

**13.** Eguzki Bideoak busca la **confluencia** con otras organizaciones o proyectos que trabajan en el marco de la comunicación alternativa en los campos audiovisual, radiofónico o de las nuevas tecnologías. Trata de incentivar la convergencia con grupos cuyas perspectivas sean similares a las nuestras, trabajando las afinidades y respetando las diferencias.

**14.** Eguzki Bideoak ofrece su infraestructura, conocimientos y planteamientos a aquellas iniciativas populares que necesiten servicios audiovisuales. Se potenciarán las **relaciones estables** con las organizaciones que desde un **cuestionamiento radical** de la realidad demanden nuestra colaboración.

**15.** Eguzki Bideoak se siente parte de quienes piensan que otro mundo es necesario. Somos **disidentes** y sabemos que posicionarse hoy en día contra el Imperio significa enfrentarse a enemigos poderosos. Pero también sentimos que compartimos **sueños y esperanzas** con todas las multitudes que llevan un mundo nuevo en sus corazones.

Eguzki Bideoak es una **herramienta de transformación permanente, individual y colectiva**; quiere desarrollar **actitudes críticas**, activas, creativas, propositivas y responsables. Pretende cartografiar territorios al margen del miedo y la codicia. Aspira a no reproducir esquemas de dominación de género y a **potenciar la utilización del euskera**.

## “Informazioa ez dago salgai”

Elkar **komunikatzen** garelako gizakiak gara; informazioa elkar trukatzea oinarrizko giza jarduera da; Distantzia, ideien, sentsazioen, arazoen, beldurren, desioen transmisioa zailtzen duen hesia da; Zuhaitzetatik jaitsi ginenetik, gorputzarekin, ahotsarekin, idazkerarekin, inprentarekin, telegrafoarekin, telefonoarekin, irratiarekin, zinearekin, telebistarekin edo ordenadorearekin irtenbide bat aurkitzen saiatu gara; Informazioa igortzeko kanal hauek kontrolatzen dituenak boterea dauka; **Kapitalaren boterearen aurka, herri boterea.**

**NOR GARA**

**1.** Eguzki Bideoak **egitasmo herritarra, horizontala, independentea eta autogestionatua da**. Produkzio sistemen, aberastasunaren banatzearen eta gizakien, herrien eta naturaren erlazioetan bilakaera sakon eta erabateko bat du helburu.

**2.** Ikus-entzunezko eta informazio telematikoaren produkzio eta distribuzioaren inguruko berariazko **hausnarketa baten** ondorioa gara. Neoliberalismoaren proposamen ideologikoari, gerra propagandari eta alienatzailea den masa kulturari aurre egiteko aukera ezberdinak beharrezkoak direla uste dugu.

**3.** Komunikazioa merkantzia bat ez dela uste dugulako, gurea proposamen **antikapitalista** bat da. **Merkatua alde batera utzita** komunikabide bat kudeatzeko moduak bilatzen ditu. Irabazi ekonomikoaren irizpideetatik kanpo kokatzen da eta komunikazio enpresen logikaren aurka dago.

**ZERTARAKO**

**4.** Eguzki Bideoak-en lehentasuna iritziaren formazio komunikabideek isilaraziak, desitxuratuak, ahaztuak edo kriminalizatuak izan diren ideiak, esperientziak edo gatazkak zabaltzea da. Gure lan esparrua **lokala** da baina bestelako errealitateekin kolaboratzeko **irekiak** gaude, ahotsik ez dutenei ahotsa emateko beti.

**5.** Eguzki Bideoak ahalik eta jende kopuru handienari heltzeko xedearekin ekoizten ditu bideoak, modu honetan **kulturaren homogenizazioa** eta Pentsamendu bakarra zalantzan jarri, **hizkuntza gutxituen** jazarpenari aurre egin, **giza kontzientzia** sortu, **konpromezuak** eragin eta **bideoaktibismoa** sustatzen ditu.

**6.** Kapitalak zapalduen eta zapaltzaileen artean logika bereko bat behar du. Informazioaren teknologiak garrantzitsuen moduan transmisio ideologikoren mekanismo gisa ari dira egituratzen. **Software askea, sarean baliabide antagonista eta gerrilla telematikoa bultzatzearen alde egiten dugu apustu.**

**7. Informazioa hedatzeko moduak eraikitzen** saiatzen gara. Beste pertsona talde batzuekin elkarlanean etorkizun batean Eguzki Telebista errealitate bat izan daiteke. Erronka honi aurre egiteko baldintzak honakoak dira hurrenez hurren: banakotasunen masa kritikoa, baliabide teknikoak eta ahalmen finantzieroa.

**8.** Ikus-entzunezko fondoen **banatzaile eta fitxategi bat** sortzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Iraganeko **borroken testigantzak** herri ondarearen parte dira. Baliabide hauen erabilera eta mantenua, hainbat pertsonekiko justizia historikoa da, borroka berriak bermearekin edo gure ikasketa propioan eta pedagogia

politikoan sakontzeko ezinbesteko baldintza dena.

**NOLA**

**9.** Eguzki Bideoak desadostasunetik abiatuta adostasuna bilatzeko elkarlanean aritzen den **pertsona ezberdinez** (nodoak) osatutako sarea da. Gure proposamenek zentzua badute eta politikoki onartzeaz gain nodo kopuru nahikoak bereak egiten dituztenean hartzen dute bizia. Norabide bakarreko informazio bide moduan teknologia gaitzesten dugu. Baliabide teknikoak pertsonak, taldeak eta ideiak harremanetan jartzeko tresna moduan ulertzen ditugu.

**10. Asanblada erabakitzeko gunea** da, **subiranoa eta loteslea**. Gure antolatzeko modua asanbladan oinarritzen da maila guztietan eta adostasunera jotzen dugu gure praktika politikoaren oinarri nagusi moduan. Egitekoak banatu, lana antolatu, eztabaidak garatu, erabakiak hartu eta ardurak eskatu behar diren lekua da.

**11. Partehartze iraunkor herritarrera**, **berdintasunezkora** eta **autoritarismoaren** aurkakora deitzen dugu. Eguzki Bideoak-en ez dago bozeramailerik, ordezkaririk ezta ideologorik ere. Zentralizatu gabeko errealitate bat islatzen dugu, eraikitzen ari den kooperatiba, zeinetan ez da protesta onartzen baina bai ordea proposamena sustatzen.

**12.** Geruzatzen, hierarkizatzen, edota ezagutza maila ezberdinak finkatzen dituzten dinamikak gainditzen dituzten mekanismoak martxan jartzea da gure asmoa. Jakintzaren **banatze horizontala** eta kideen prestakuntza jarraituaren alde egiten dugu apustu.

**NOREKIN**

**13.** Eguzki Bideoak-ek irratigintzan, ikus-entzunezkoan edo teknologia berrietan komunikazio alternatiboan lan egiten duten beste talde edo proiektuekin bat egin nahi du. Haien helburuak gureen antzekoak dituzten taldeekin **bateratasuna** bilatzen saiatzen da, kidetasunak landuz eta ezberdintasunak errespetatuz.

**14.** Eguzki Bideoak-ek ikus-entzunezko zerbitzuak behar dituzten herri ekimenei bere egitura, jakintza eta ikuspuntuak eskaintzen dizkie. Gure laguntza eskatzen duten errealitatearekiko jarrera zalantzazkoa eta **erradikala** duten taldeekin **harremanak** bultzatuko dira.

**15.** Eguzki Bideoak beste mundu bat beharrezkoa dela uste dutenen barruan sentitzen da. **Disidenteak** gara eta badakigu gaur egun inperioaren aurka agertzea etsai indartsuei aurre egitea dela. Baina haien bihotzetan mundu berri bat daraman jendetzarekin **ametsak eta esperantzak** konpartitzen ditugula sentitzen dugu ere.

Eguzki Bideoak **etengabeko eraldatze tresna** bat da, **banakakoa eta kolektiboa; jarrera kritikoak** proposamenezkoak, eraginkorrak, sormenezkoak eta arduratsuak garatu nahi ditu. Gutizia eta beldurra alde batera utzita lurraldeak kartografiatu nahi ditu. Generoko mendetasun eskemak ez errepikatzea du helburu eta **euskararen erabilera bultzatzea du helburu**